

“VitaminaA”: Anarkia ermuar erara

Orain dela urtebete, Ermuan talde berri bat sortu zen. Bere izena VitaminA da, eta gure herriko historian lehenengo talde anarkista dugu. Gu, beraien lokalera hurbildu gara kolektibo hau hobeto ezagutzeko asmoz:



DROGETENITTURRI- ZER DA “VITAMINA”?

VitaminaA- Ideia anarkistak dituzten 18 pertsonen osatzen duten Ermuko kolektibo bat.

D.- ZERK BULTZATU ZAITUZTE TALDE HAU OSATZERA?

V.- Gure artean, betidanik izan ditugu gizarte arazoei buruzko eztabaidak, baina lehen ez genuen ezer egiten. Hori dela-eta, talde hau antolatzea era-

baki genuen, giza-arazoen aurrean jendea esnarazteko. Oker dagoena aldatzeko joera bat sortu nahi dugu.


D.- NOLAKOA DA JENDEAREN PARTEHARTZEA KOLEKTIBOAREN BARRUAN?

V.- Ekintzen arabera; 18 pertsonen alokairua ordaintzen dugu, baina jailetan eta kontzertuetan jende gehiagok hartzen du parte. Bileretan berriz, kopurua txikiagoa izaten da.

D.- NOIZTIK ARI ZARETE HONETAN?

V.- Gure lehenengo ekintza 1996ko martxoaren 3an izan zen, kasualitate hutsez hauteskunde egunean. Egun horretan gu bezalako jendea, hau da, boturik ematen ez duena, elkartzea bururatu zitzaigun. Horretarako kartelak jarri genituen eta hauteskunde egunean goizeko 8etarako Ongarain, jaia- ren lekuan, geunden. Honekin hasi ginen.

Harategia



M. LAZKANO

Bertoko Okelak

**Geure Baserrian Hazitako Txalak
Geuk gizendutako abeltzantza**

Merkatua, 36-37 zbk.k - Tfnoa. 17 05 84

Ermua

ELEKTRAGAILUENTZAKO ZERBITZU TEKNIKOA



EGANA

ALDAGAILUAK

GARBIGAILUAK - SUKALDEAK - HOZKAILUAK
LEHORGAILUAK ETA BEROGAILU ELEKTRIKOAK

DIPUTAZIOA 7 # TLF. 17 66 08 # ERMUA
BIDEBARRIETA 33 # TLF. 70 28 33 # EIBAR

ZARAUZTARRA JATETXEA

**LEHEN, ORAIN
ETA BETI**

- Zapua
- Txuletak
- Bildotsa burduntzian
- Laranja flana



DROGETENITTURRI

D.- ZE EKINTZA MOTA EGIN DUZUE?

V.- Aipatutako hauteskunderen kontrako jaiaz gain, Buenaventura Durruti-ren jaiotzaren mendeurrena zela-eta jardunaldiak, Langilearen Egunean beste jai bat, aurtengo Jardunaldi Antimilitaristetan irratsaio bat, asteleheneroko eztabaidak, fanzinea eta zenbait jai libertario.

D.- FANZINEAK HARRERA ONA IZAN DU. ALE GEHIAGO ARGITARATZEKO ASMORIK?

V.- Bigarren zenbakia ateratzear dago. Zuloan egingo da aurkezpena, eta honekin batera antzezlan bat ikusteko aukera izango da.

D.- ZEIN FINANTZA-ITURRI DAUKAZUE?

V.- Egindako zozketa batez bildutako diruak lehenengo zenbakia ateratzeko eman zuen, eta horren salmentaz bigarrena egin dugu.

D.- ZERGATIK EZ DIRA ZUEN FANZINEAN HERRIKO GAIK AGERTZEN?

V.- Lehenengo zenbakian taldearen ideiak azaltzea zen helburua; horregatik sartu genituen hain gai desberdinak, jendeari nola pentsatzen dugun jakinarazteko. Agian horrexegatik, lehenbiziko zenbakia apur bat hankamotz geratu zaigu. Antolakuntza formalik ez dugunez (ordutegia, epeak...) bakoitza gure erritmora joaten gara.

D.- ZERGATIK EZ DUZUE ZUEN FANZINEAN EUSKARA ERABILTZEN?

V.- Taldeko partaide guztiak erdal-dun elebakarrak gara, baina bidalitako artikulua dauden hizkuntzetan argitaratuko ditugu; eta gure bileretan komentatzen ari gara hurrengo zenbakie-

tan euskarazko artikulua gaztelerazko laburpenekin eta alderantziz egiteko aukera.

D.- ZE HARREMAN MOTA DUZUE KANPOKO KOLEKTIBOekin?

V.- Kanpoko "Juventudes Libertarias", CNT, CGT eta beste fanzinekin materiala elkartrukutzen dugu, baina ez daukagu erlazio formal bat.

D.- ETA ERMUKO KOLEKTIBOekin?

V.- "Vitamina"-ren izenean gure herriko kolektiboekin ez daukagu harreman zuzenik, baina gure kide askok beste taldeetan hartzen dute parte, hala nola, Kakitzat, Artarra, Rock Taldeen Kolektiboa eta abar. Hala ere, Gazte Asanbladakoak asteleheneroko tertulia-kideak dira.

D.- NOLA IKUSTEN DITUZUE HERRIKO TALDE ZEIN KOLEKTIBOAK?

V.- Oso ondo, talde asko dago, eta oso zabalak dira. Gu prest gaude edozein talderekin zerbait egiteko, baina beti ere "Estatuaren kontra" lelopean.

D.- HERRIKO TALDE BATEK ZUEN LAGUNTZA ESKATU ZIZUEN PRESOKEN SAKABANAKETAREN AURKAKO KANPAINAN. ZER GERTATU ZEN HORREKIN?

V.- Gure artean, gai horren inguruan oso jarrera ezberdinak dauzkagu. Gutun baten bidez azaldu genien laguntza eskatu zigun taldeari zeintzuk



Taldekieak berez 18 dira, baina beren ekintzetan jende gehiagok hartzen du parte.

ziren manifestua ez sinatzeko geneuzkan arrazoiak. Arrazoi horien artean zeuden, preso politiko - preso sozial, euskal preso - kanpoko presoen arteko bereizketa, eta besteak beste Ortega Lara eta Cosme Delclaux-en giza-eskubideak ere ez direla errespetatzen. Gu sakabanaketaren aurka gaude, baina ez bakarrik ETako presoei dagokienean, kasu guztietan baizik.

D.- ETORKIZUNERAKO ZE ASMO DUZUE?

V.- Aipatutako bigarren alearen aurkezpena, gure Jai Libertarioa Ongaraitik jaitziz Ermuan egitea, zezuketean aurkako kanpaina bat, eta gure taldeko Barrutia insumiso izateagatik epaitzen dutenean, maiatzaren 22an, zerbait egitea, Kakitzat-Talde Antimilitaristarekin batera.

Kaltxango AEX Euskaltegiko Hobekuntza Taldea



URRETA

Burdindenda

- * Etxea
- * Tresneria
- * Brikolaia
- * Rielak
- * Giltzak
- * Zerrailgintza
- * Kit Haltzariak

Zeharkalea, 8 Telf.: 17 65 61 • ERMUA

OUTUMURO KAFETEGIA

- KAFE BEREZIAK
- TARTA NATURALAK
- AUKERA HAUNDIA TE ETA INFUSIOETAN
- Astelehenetik ostiralera 9etan zabaltzen dugu



optika

itze

Probaleku, 7

Tfnoa. 17 46 71